

IGERITZ

Testua eta irudiak: LEO LIONNI

Itzulpena: KOLDO IZAGIRRE

Azal gogorrean koadernatua. 22 x 27,5 cm. 36 or. 15 €

IRAKURKETAREN PLAN NAZIONALA (PNL Portugal)

2. argitaraldia. Iraila, 2020

Igeritz (euskara)

ISBN 978-84-8464-630-3. Gaur egungo klasikoak.

Nadarín (galegoa)

ISBN 978-84-8464-628-0. Tras os montes.

Nadarín (gaztelania)

ISBN 978-84-96388-60-4. Clásicos contemporáneos.

Neda-que-neda (katalana)

ISBN 978-84-16804-02-3. Clàssics contemporanis.

Nadadorzinho (portugesa)

ISBN 978-972-8781-59-0. Clássicos contemporâneos.

Itsasoko zoko galdu batean arrain sarda handia bizi zen zoriontsu.


Denak gorriak ziren. Baina bazen bat beltza, muskuilu oskola bezain beltza. Sedíneek baino hobeto egiten zuen igeri gainera. Igeritz esaten zioten...

Igeritzen historiak, Leo Lionniren liburu guztiek bezala, bizitzari buruzkoak ikastera eta hausnartzera eragiten gaitu.

Bestelakoa izatearen balioa eta –kulturaz edo itxuraz– gainerakoon ezaugarriak ez dauzkanari zor zaion begiramena, munduko haur literaturan klasikoa den ipuin honen lehen orrialdeetan ageri dira nabarmen.

Are gehiago, geure moztasunei gain hartzea, azal litezkeen aurkakoak arren geure inguruaz gozatzeko nahimena eta hurkoarekiko elkartasuna ere hortxe daude islaturik estetika ederreko eta iradokizun indar handiko esaldi laburreko ipuin honetan. Eta esaten zaigun guztiaren ikur bezala, mezu hauxe: batasunak indarra dakar.

Aipagarria da halaber Leo Lionnik 1963an argitaratu zuen lan honetarako eginiko hautu estetikoak, gaur egun guztiz erakargarria izaten jarraitzen duena. “Kolorez zikintzea” esan izan zaion teknikaz, higidura handiko mundua sortzen du, aberastasun kromatiko handikoa.



- **Gaia:** bestelakoa izatea, batasunaren indarra, oinazeari eta beldurrari gain hartzea.
- **Adin egokia:** 5 urtetik aurrera.
- **Nabarmentzekoak:** haur literaturan klasikoa da obrahau, eta estetika berezikoa; honako hauen egile berarena: «[Frederick](#)», «[Kornelio](#)», «[Alex eta sagu mekanikoa](#)», «[Urdir Txiki eta Hori Txiki](#)», «[Matiasen ametsa](#)», «[Munduko etxerik handiena](#)», «[Arrarik arra](#)».
- **Liburuaren aurrerapena:** https://issuu.com/kalandraka.com/docs/igeritz-eusk_72a149df10044c

Leo Lionni

(Amsterdam, Holanda, 1910 - Toscana, Italia, 1999)

Leo Lionni arte-giroan hazi zen –haren ama operakantaria izan zen; osaba Piet, berriz, margolaritza-zale handia– eta oso gaztetatik jakin zuen huraxe izango zela bere zoria. Jaso zuen formakuntza, aldiz, ez zen artistikoa izan, Ekonomian doktoratu baitzen. 1931n Milanen bizitzen hasi zen eta lehen harremanak izan zituen diseinu grafikoarekin. 1939an Ameriketara joan zenean, Filadelfiako publizitate-agentzia batean, Olivetti korporazioan eta Fortune aldizkarian lan egin zuen. Artista mailako ospea ere lortu zuen eta bere margolanak galeriarik onenetan erakusten hasi ziren, Estatu Batuetatik Japoniaraino. Lionni-k berak noizbait esan zuenez, “Nolabait, nonbait, arteak haurtzaroko sentimenak adierazten ditu beti”. Haurrentzat idatzi zuen lehen liburua ia ustekabeen sortu zen 1959an: tren-bidaia batean, zetazko paper zatiz egindako istorio baten bidez bilobak entretenitzea otu zitzaion. Halaxe sortu zen “Urdir Txiki eta Hori Txiki”, eta haren atzetik mundu osoko adituek txalotutako 40 obra baino gehiago. Eskultore, diseinatzaile, margolari eta ilustratzaile gisa egindako merituengatik Arte Grafikoen Amerikar Institutuaren Urrezko Domina jaso zuen 1984an.

<http://leolionni.wordpress.com>